LOTAZILLA
26
ASTARTIA

BILBAO 1933

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko. Iruileko
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.568 zenbakija

Egunekua

Gabon-abestijak

Getxo'ko abertzale zintzuak bidaldu dauskuben ingi txikitxu bat eskubetaratu yaku Guk, bariz, eskubetaratu yakunaz, batera, abegi ona egin dautsagu, ta ingi-gane ikusi doguzan leruak, euzkeraz idatzijak ixan be ixan dira-ta, poz-pozik irakuri.

Ingitxu onek dakarena, emen berago imiñiko dogu.

Eta berau, irakurle, zeuk be ikusiko dozu, baña, Gabon-abestijetzazkua da. euzko -oiturak zarai bixitzea emonagaz. soroski biarean aurkitzen diran anai matiei lagunduteko bidia zabalduteko asmoz egiña.

Ona emen ingi onek diñuana:

"Getxotara, agur:

Euzko - ikastola'ko mutiko - neskatuak, Euzkel-Erijetako ekandu ta abesti zarak berbiztu gurarik, zugana datorz Gabon -abestijak abestuten.

Geure abestijok, getxotar, ori, iragariko al-dautzubez Gabon-zar onak eta Urtebari zoruntsu bat.

Zorijonak."

"Uara. Batuten dana, lan barik dagozan Euzko-Langilentzat ixango da."

卐 卐 卐

Getxo'ko abertzaliak ingitxu onetan agertuten daben asmuari, ederto be ederto deritxagu euzko abestijak eta euzko-otura zarai bixitza barija emonagaz, anai biartsubei bixija luzatuteko bidia dalako.

Tamalez, ingitxu au, berandutxu guganatu da. Lenago eldu ixan ba'litz, ba, zabalgunde geitxubago egingo geuntzan, Gabon-abestijok abestuten etxe-atadiietaratuten diran abeslarijei arera ona egiñaz soroski obea eskubetaratu dagijuentzat.

Gabon-jayak

Aurtengo Gabon-jayak be, irakurle, igazi dira.

Batzubentzat alayak be alayak ixan dira; beste batzubentzat, ostera, itunak be itunak.

Gabon-zozketa nausijan sari nausija irabazi dabenentzat, Gabon - jayak, alayak ixango ziran. Josu'ren jayotzea ospatuteko aparitarako ogija erosteko laurleko bat ixan eztaun guraso erukarijentzat, bariz. itunak.

Eta onetariko sendi bat baño geyago ixango zirala uste dogu, iñundik txakurtxiki baten irabazpiderik eztauken sendiran bat baño geyago ezagutzen doguz-eta.

Zorijonez, baña, gure anai erukarijokin erukitu diranak be ixan dira. Oneik. Bilbao'ko ta enparau erijetako Emakume Abertzale-Batza'k, ixan dira.

Oneik, emakume bijozbera ta onbidetsubok, lan barik aurkitzen diran gure euzko -sendijen aldez, lan ederak egin ixan dabez.

Biartsuben-aldezko laguntza-eskezko dei samurik asko egin ixan dabe, ba, euzko -etxe askotara eldu, ta atia "¡tak!, ¡tak! jota premiñan aurkitzen diran sendi euzkotarentzat, soroskija eskatu.

Eta euzkotarak, emakume abertzalien deyari, osuan erantzun dautse.

Batzuk, txindiz erantzun eutsen. Beste batzuk, jakiz.

Urenguak, janzkijak bidaldu dautsez, eta aragokuak, ostera, edakijak, eta abar.

Eta onetara erantzunaz, euzko-langila lan bakuen eskaratz otzetara, Gabon-bero apurtxu bat eldu zan.

¡Txalogarijak dira, bein, premiñan aurkitzen diran anayakin onetara gomutetan diran emakume bijotz-samurak! Be-yuaki jubez, ba, guriak be.

Espetxian

Gabon-jayak zoruntsubak ixateko, zoritxararen arantzatxu bat be eleuke ixan biar.

Ludijon, baña, zorijon osorik ezin idoro leikela esaten dauskube, ta ixan be alantxe dala uste dogu.

Lan barik aurkitzen diran gure anayen gau baterako zorijona, Emakume Abertzale-Batza'k lortu ixan dabela esan dogu. Gure anai espetxetuben azkatasuna, baña, iñortxuk be ezin lortu ixan dogu...

Eta gure anaya abertzaliak, Euzkadi'ri dautsen matasunaren euren bijotzetan garra darijuela dauken aberi - matasunezko suba agirijan imiñi ixan dabela baño beste oben barik, Gabon-gabaz be, espetxe -txaki otzetan egon biar ixan dira, euren bijotzetako ara-ama ta Gabon-apari goxo tik urun...

Iñundik eta iñora azkatu ezin ixan doguzan anai espetxetubei be, baña, euren etxietako eskaratzetako berua eruan ezin ixan ba-dautsegue, be, geure euzko-bijotzetako berua euren artian ixan dabe.

¡Zorijonekuak zuzutsaren areyuen zigora jasaten dabenak!

URIBITARTE'TAR IBON.

JEAN BARBIER

ESKUALDUNAK EGYPTOAN

(Euzkaldunak Aegito'n)

Gabonetako Ipuña

Gabon gaua zan. Ume gustiak alboan jari yakozan, eta ona zelan asi yaken Aitita:

"—Orain dala aspaldi-aspaldi, albista andi bat etori zan eguzkialdetik, eta laster zabaldu Euzkal mendietan: "Mesias", gustiak itxaroten eben "Salbagilea" jayo zala an, Betelen'en, Jerusalen ondoan. Non dik eldu zan bari ori? Zuzen, iñok ez ekian. Iñok ezagututen ez zituzan gizon eder batzuk ibili ziran mendirik mendi, erepari oregaz; aingeruen batzuk, aurki! Gero! gau eder baten, beti eguzkiaidean, zeru osoa argituten ebala, izar zoragari bat agertu zan...

Usobilo andia sortu zan Euzkal-Erian. "Gernika,,'n, "Ustaritz,,'en batzarak egin ziran, eta egun baten, gure asaba Kantabroak, aor, erabagiten dabe: "Euzkaldunen izenean, norbait bialdu bear zala Mesias-Umeagana".

卐 卐 卐

Eta esandakoanez egin zan egin bere. Zisku luzea euki-ala diruz anditurik, bidezoroak jatekoz eta zaatoak etxe-ardaoz ler-egin aginean beteturik, bideari ekin eutsen Euzkal-Eriko "zazpi" etxeko jaunik obeenak.

Bide luzea, izugaria eben egiteko. Baña, biderik izugarienak ba-ete-dituz eguno Euzkaldunak izutu? Eta ganera, Salbagileagana yoazan...

Joan ziran, beraz, mendien gora, ibai andien beera, Españian baruna. Bide zior, zabal, eder, ezain, gustiak yoazan luzatuaen atzean. Eta, alan bere, askoz geyago gelditñuten aurean!

Españia'ko azken-azkeneko mugatik, untziz igaro ziran Apirka baltzera, eta, gero, bidean ez eratuteko, legorez-legor joan, eguzki alderantz beti.

Joan, joan, beti joan, baña sekulan ez elduten! Gose eta egari onik iraun eben maurtu izugari aetan. Baña orduan, euren Euzkal-Eriko aldra-abestietan asten ziran, eta abesti aek entzuteko, gose gaiztoenaren kurinkea bera bere isildu egiten ei yaken sabelean. Mauru-baltz, lapur, basa-pizti mueta gustiak zituezen sari jarayan, aranoak artaldearen jarayan legez, inguruka... Baña, orduan, zazpirak irintzika asten ziran, eta... kuku leoyak, lapurak eta Mauruak: sekulako ikaratuta, euren zuloetara biurtuten ziran. Eta banaka batzuk, arean, lartxoegi urueratuten ba'ekiozan, euzkaldun makilak txistu egiten eben gure etxeko-jaunen eskuetan.

Bariro bere joan, joan, basamortuan baruna, beste itxaso bat ostera igarorik, azkenean, elduten dira Jerusalen'era. Ba-ziran sei ilargi bete Euzkal-Eritik bidean asi zirala!...

Baña, a uste-bagako naigabea Jerusalen'en. Miren Andra Deunagaz eta Joseba Deunagaz, Jerusalen'dik Aegito'ra igesi joan baña zan oyez Josu, "Herodes" dongearen bildurez!

—"Herodes ozpina! Emen izan ba'gina gu geu geure makilatxoakaz! Ako tximitxak eta tximistak ire bizkarean... Demontrien bizkar ori, alakuori!..."

Baña, zer balio eban olan marmarizoka jartea...? Jo beraz Aegito'ra... Eta etoriko bidetik, ba-doaz bariro Aegito'ra.

Joan, joan bariro bere, eta, ilun-nabar gori baten, eurak bere ondo jakin barik zelan, ona non aurkituten diran... Josu -Umearen aurean!

Ama Birjinearen altzoan lo egoan zeru -luren Jaungoikua, ordurako pizka bat andi egiña, azitxoa. Joseba Deuna isil-isilik, lanean ziarduan bazter baten.

Etxeko-jaun euzkaldunak Josu'ren ondoan belauniko jari ziran beindaneko, alik politozkoen. Oi, aen negar gozoak begietatik beera! Ako "pil pil" gozoa biotzean! Bideko neke eta lorak, aiztuak ziran gustiak orain, an, Josu'ren alboan. Joseba Deuna, lana lotuta, isil-isilik beti, Euzkaldun siñiste andiko gizon aeri begira egoan samurkiro.

Eta ara non Ama Birjiñak, baretxo bategaz, besoetan iminten dautsen, oindiño loakartua dagola, Josu euren Jaungoiko Salbagilea... Gure asabaen atsegiña orduan! Biotza erdiratu egiten yaken, zorionaren andiz. Antxe bertan zoratu ez ziranean! Zorionez, Euzkalduna kaisko onekoa izan!

Onenbestez, ara non iratzartuten dan Josu, gure asabak Miren'en besoetara atzera emonaz beraz. Eta bare gozo bat egiten dautse bereala: "Or zaree, neure Euzkaldun maiteak? Zuen begira nengoan urte gusti onetan. Atsegin dot zuek ikusteaz, zuek, bada, zeuen eratara, beti Jaungoiko legeari deutsazuela egon zaree-ta. Zetan dira zuen lagunak, an, Euzkal mendi eder aetan? Jagon beti zeuen sinistea! Eta sinistea jagoteko, "eutsi zakioze beti zeuen berbeta ederari"; eutsi egiozue baita, sinistearen bear orduetarako... zeuen "makila" lerdeneri! Zoaze, biurtu zaiteze erietara! Biotzez, eta sekula gustietarako, bedeinkatuten dodaz neure Euzkaldun adizkideak. Neure kistaren artean, areixek gura dodaz eta eurak izango dira beti obeenak!..."

卐 卐 卐

Biaramonean, etxe alderantz asi ziran Euzkaldun asabak. Bidea labur iruditu yaken atzerakoan; Josu'ren grazia ugarigaz eldu ziran, alabaño.

Euzkal-Erira noizbait etori ziranean, nok esan Euzkaldunen poza, Josu'ren erepari maite andia entzutean? Orduxetik, arik eta Eroma'tik lenengo Obispoak etori artean, kistar eginda egozan gogoz eta biotzez...

... ...

Neure loba maiteak, aor amaitu nire ipuña. Josu'k eskaturikoa legez, jagon egizue zeuen berbeta edera, zaal eta garbi jagon baita zeuen "makilak"; Eliza Ama Deuna, Josu'ren sinistea, makila oreen bear izanean leitekez, eta bear bada, guk uste doguna baño lasterago...!

卐 卐 卐

Eta Gabonetako bere ipuin polita olan amaitu eban, beraz, gure Aititak.

Eta umeak, lobak, oindiñokaren euren Aitita onari ao zulora begi egokazala, ara Aititak oartu, Kepatxo, zaarenak, eskaratz bazterean artuta, tente tente eukala eskuan "bere aitaren makilea"...!

Eta bereala, biztu, poztu egin yakon Aitari bere Euzkaldun biotz maitea.

Bizkayeratzalea,
GARO'TAR BERNARTA M.

Gabon-egunak

Aralar'en. Urte ta erdi, udaberiko igande baten eguerdian an giñan. "Maite ditut galurak—argiak ez beste... Oi udaberi—, goizez mendiaren galura!..."

Etxera jo bear gendula-ta, lauretan aldapatz bera ekin gendun. Bat-batean esan zidan lagunak: Or, ituri bat jayotzen dek, ta emen eskui alde ontan beste bat.

Baña begira: Mendi batetik irten aren, bat Donostiko itxasora, ta bestea Catalunya'ko uretara zijoaztik. Egia zan ala ere!...

卐 卐 卐

Gizonei ere orixe gertu oi zaye saritan.

Orain Gabon egun zai gera orok; batzuk Kistogana joateko, beste asko beriz Kistogandik urutiago bizitzeko.

Palestinan (Kistoren aberian), Josu jayo ta bizi izan zan urteetan ori ber-bera gertatu zan.

Askok uste dute Josu Kisto azaldu zan aldian, bere zai iñor etzegoala... Oregaitik bere aurka ibili zirala ta...

Begira ordea Ebangerietatik ateratako itzak:

Simeon "Israel'en atsaldi zai" zegon (Luk. 2,25).

Ana "onek ere Jauna goresten zun ta jareikuntza zai zeuden guziei "Auraz" zarauskien". (Bertan 38).

Herode, Eregien galderak bilduraz jo zuenean, jakintsuei itandu zien Mexiaren jayoteriaz; auek erantzun zuten: "Judako Betlen'en, orela igarleak idatzita baitago... Betlen... zugandik sortuko baita Aitzindaria, Israel nere eria laratuko duna". (Mt. 2, 5-6).

Jon Ukuzlearen ikasleak Josu ber-berari: "Zu al zera Etortzekoa, ala besteren zai egon bear dugu?" (Luk. 7,19).

Joseba Arimaikoa "Jainkoaren jauraldi zai zegon" (Mk. 15,43).

Ander'ek bere anai Simon'i dasayo: "Mexia, edo berdin dana, Kisto'aidoro dikagu. Ta Jesugana eraman zun" (Jo. 1,41).

Samariar emakumeak Jesu'ri diotsa: "Badakit Kisto'a deritzan Mexia, etortzeko dala. Datorenean, dana Berak irakatsiko digu" (Io. 4,25).

Miren Matalar'a aizpa Martek Jesuri dasayo: "Bai Jauna siñetsita nago Kistoa Jainkoaren Semea lur ontara etoria zu zerala" (11,27).

Kistoren zai egon eta biotzez Beregana jo zutenak arkitu zuten. Ta zelako adizkide, maitale, biotz bera arkitu ere. Besteak ordea...

卐 卐 卐

Or bada adizkide... Zu zoriontsu egiteko etoriko dan Josu'ren zai-zai, biotz on ta xaloz egon zaite. Bera arkituko dezu... Gabon egun abek Jesukistoren iru etorreraren beri ematen digute. Bat, Betlen'en jayo zanezkoarena. Bestea, gizonaren gogo ta baruan jayotzen dan aldizkoarena. Irugaren, lur onen azkenengo egunetan beriz azalduko dan egun bildurgarianen iduriarena.

Betlen'en "ume" polit zoragaria. Gure baruan, "adizkide" ta maitale kutun xamura. Azkenengo egunean, berentzat "anai ta Jainko" biguña; beratzaz biotz onez zai izan etzutenentzat, "epaile" gogor ta Jainko indartsua.

Adizkidetzaz orain artu, gero ta beti berarekin atsedenetan bizi izateko.

OYARTZABAL.

Deunen bixitza

Jusu'ren jayotza

Ludija ludi danetik, eta ludi-azalian, Jabe jaunak irazanda, gixona azaldu zanetik urtiak eta urtiak jun ziran. Eta urtiak jun, eta urtiak etori. Jabe Jaunak abindutako abintzak betetako aintzia, be, eldu biar. Ara Abaran erkabeari abindu leutsan: "eure semiagan onetsiko yodazak ludiko gixeli gustijak". Dabi'ri urengo: "eure belaunetiko semia ixango yuat nik seme; eta berak ixango nayok ni Aia; eta bere aukija betiko ixango dok nire begijetan". Ixai, iragarle andijaren bidez abindu euskuban: "ara neskutz neskatileak sortu, ta semiaz erdi ixango da; eta bere ixena Imanol, edo Jauna gurekin".

Gotzona jatsi zan donokitik Miren Neskutzari goiko izparak iragarten. Miren Neskutzak Goteun-bidez sortu leban sabelan. Eta bederatzigaren ila ure zala, Betelen'erako bidia, Joseba senara lagun, artu leban.

Aldi atan edozeinbere gixon judarak ixena emon biar leban bere sorterijan, Roma 'ko Agimendunaren aldunak agindu leban arauz. Eta Joseba'k, emaste sabelduna artu, ta asto-gane, eruan leban Betelen'era, an ixenak emoteko. Eldu ziran Betelen'era; aroztetxian dei egin leben; aroztetxian, baña, uko egin leutsien, lekurik elebela-ta Arendan, uritik at urten, eta aberiak-eta babesleku leben bidondoko artzulora sartu, ta an atondu ziran Joseba ta Miren.

Gaberdiz erdi zan Miren Neskutza, eta Jaun-Goiko-Semia bere semia eginda begijen aurian ikusi leban. Besuetan artu, eta apa ta mosu gurtu ta jeuretsi leban matakiro bere semia, Jaun-Goikua'ren semia zana. Joseba'ri, be, ukañi leutsan; eta Joseba'k besuetan artu, ta apa-mosuka jan gura ixan leban Jaun-goikua'ren eta bere emaste Neskutzaren semia. Gero oyaleztau leben, eta askatxuban lazto-gane jari, eta bijak belaunbiko gurtu ta jauretsi egin leben. Bai-ei-ziran aska-ondotxo idija ta astua; eta abere bijok, burubak aureratu, ta euren arnasa beruaz ume jayobarijaren otza epeldu ta berotuten leben, aberiak, be, euren Jauna ezagun leben-eta.

Gaberdiz, Jaun-Goiko Semia jayo zanian, aldurijetako artzain - taldiak liñarduben mendijetan ardijak zaintzen eta artaldiak kortetan jaboten. Gaberdiz, ba, ... argi-moltsoz jantzirik, atzaldu ... "Agur" esanik bigunkiro, "ona ... zor aundija diragartzubet—esan ... Gixadi-gaizkalia, Dabi'ren Semia, ... tzube gaur Dabi'ren urijan. Eta ... zube ezaukija: Umia oyaleztaurik ... katxuban jarugiko dozube lasto-gane ... bat-baten gotzon-taldia egin zan, ... batez abestuten leben gustijak: ... Jaungua'ri goyetan ;eta ludijan ... ramen oneko gixonai".

Eta gotzonak ayenatu ziran; eta ... ñak, alkari zirika, "guazen, bai, ... 'era—esaten leben—eta Jaunak ... kun au ikusi dakuskun". Eta ... eta Betelen-bidondoko askatxura ... igari yakena jarugi leben. Aurki... leztaurik eta lasto-gane etzunik ... ben, eta albuetan Miren Ama eta ... Jaungo-Semia jauresten eta zaintzen ... launbikotu ziran artzañak, eta bijotz... tasunik gorijenaz euren bijotzak eta ... rijak eskañi ta emon leutsaezan ... bari. Eta jauretsirik, atzera egin leben ... ren artaldietara poz eta zantzo. ... tzun gura leutsien gustijai igari yake... ikusi lebena aldarikatzen leutsien ... -bai-asko, artzañak esana entzunik ... betetan ziran eta goiko Jaunari es... ten leutsaen.

Kistar mare, Jaun-Goikua'ren ... Jaun-Goiko egi-egija, gixatu egin ... seintxu agiri da geurian, Miren ... ameagandik sein. Ortzi-ludijen egile ... bia txiro ta eukijez utz jayo yake ... eredu ixateko. Jaun-Goiko ta gixon ... tu ta jauretsi daigun; bijotz-bijotz... marakiro apa ta mosu egin dagi... eta bijotzan josirik bere matasuna ... dan andija ta Jaun-Goikua, eredu... dia ikasi ta alakotuten alegindu ... Geure bijotzak emon dagiskiau... jotz-bijotzez mare daigun; bere ... bete daiguzan, eta oñatzik oñatz... jarai ibili garezan, bai, txiro, ta ... ta apal, eta mentsu, eta siñeskor; ... taldi onetako gatxak, ezbiarak, ... ke-miñak, oñaziak-eta jasan daigu... aren; eta berak ekari ta abindu le... sarija jadetsiko dogu, bai, betiko.

M. ...

Errijetatik

ERANDIO GOIKOA (Asua)

USKURTZA. — Ila onen 8'gn. Miren Deun-ertxadonan elizkixun ederak ospatu ziran urte gustijetan Miren Neskutzaren Sorkudez ospatuten dan bederatzi-urenaren azkena zalako.

Itzaldi edera egin eban izlari bikaña dan Zoroñolaga'tar Joseba Mirena'k eta txadona notiñez beterik eguan.

OTURUNTZA.—Ila onen 8'gn. ori onetako batzokijan oturuntz edera egin zan urte-urena ospatuteko otura dan lez.

Oturuntzaren ondoren gure adizkidiak diran "Ituri" ta Zaraga'tar Martin'ak olerki ederak abestu zituban eta txistulariak euzko-abesti batzuk jo ebezan.

Azkenian, "Euzko-Abendearen Eresertkija" abestu zan.

EUZKO-LANGILEN ALDEZ.—Gogo bero andijagaz diñardube gure emakumiak euzko-langile txiruentzako Gabon esku-zareak eta janzkijak gertatzen.

¡Aurera Erandio Goiko emakumiak, alegin txiki bat egin ta poztu dagiguzan geure laguntzea biar daben anayak!

UGUTZA. — Ila onen 10'gn. ugutzau zan geure adizkide dan Berasategi'tar Joseba ta bere emazte Bilbao'tar Agate'ren ume eder bat.

Lara'tar Pantzeska, Bilbao'ko arakin ezaguna ta bere emaztia Ortiz de Pinedo 'tar Permiñe ixan ziran atabitxi amabitxiak, eta jezari eutsezan Miren Permiñe euzkel-ixen politak.

ALDAKUNTZA.—Amatu dan ezkero geure Euzko-Batzoki barija uste dogu urte barijatarako aldatuko dabela batzokija bere lekura.

卐 卐 卐

Zorijonak EUZKADI'ko irakurle gustija ta ondo igaro Gabon-jayak.

TXISTU.

Emakume Abertzale Batza, Batzoki... ko-Nekazarien Bazkuna naiz Euzko ... gilien Alkartasune'ko bazkide izan... ñera beren semetxo edo alabatxo ... izenez ugutzatu edo batayatu bear ...

Biotzez txalotzen degu Lasarte ta ... tar emakumien lan eder au.

ERIOTZA. — Astearteian il zan ... Yartza'tar Pantzeska gastetxua. ...

LASARTE

EIZTARIK. — Egun abetako eguraldi otzak eiztariei dakarkien asetasuna ez da txantxetakua! Eri guziko izkilu edo armak mendira atereak izan bear dute egun abetan; amaika dunbateko izan da beintzat eri inguruan.

Izan ere bazter guziak egabera, ixtingor, birigaro ta olagorez josiak egon dira. Eta eiztariak nola utzi orelako mauka?

Olakorak beintzat ez dute abegi ona izan. Eiztari batek iru, besteak bost, alakok sei, onoko onek bi, utsik etxeratu diranak gutxi.

Guzien artean nabarmendu dan "Miracampos" baseriko Intza'tar Benarta eiztaria izan da. Igande eguartean bakarik amaika olagor bota zituan. Bejondeizula. Bernarta!

ELIZKIZUNA. — Eliz nagusian len zazpiretan izan oi zan meza orain zortziretan izaten da.

AUR-SASKITXOAK. — Donostia'ko E. A. B.'koak asitako lan txalogaria jaraituaz Lasarte-Oria'ko emakumeak aur -saskitxo bi egin dituzte eguari egun abetan Lasarte'n naiz Oria'n izaten diran jayotz-oparitzat.

Opari oren jabe egin al izateko gurasoak Euzko-Alderdi Jeltzale'ko alderkide...

ERRENDERI

Iragarita dagon lez, datoren osteg... gabeko 8 1-4 "Iru Gudari", Sota'tar ... nol'an antzerki gorengoa antzerkilo... Erenderi'ko Euzko-Batzoki'ko Antz... Aldrak.

Antzerki gorengoa esan degu ta bai ... ere. Aldiz aldiz entzulea malko da... idukitzen dun antzerki bikaña auxe.

Ez dana abertzaletu eta lendik dan... tzaletazunean sendotzen duna Sot... lantxo au.

"Argidun", "Ganitz" eta "Saltakin... ora iru euzko-gudari gaste, abertzale ... doak izateak galtzen ditu, epaitza ... gar baten ondoren, iru gaizkile lez ... tzen dituzte eta dana iru abertzale ... bear bezelakoak diralako.

Sutunba gogora entzutez batera ... jausitzen diranean irten bearean da ... biotza, malko dariote gure begiak.

Abertzaletasunean sendoturik dio, ... egiz ostegunez On-Bide'ra doana ab... le osoro biurturik irtengo da. Eure ... tan odol usteldua ez badarama beintz...

卐 卐 卐

Ezpairik gabe, ostegunez, bat geyo ... sartu liteken eran ikusko degu On-... An izango dan ostetza ez da nolana ... izango. Abertzale utzez beteko litzake ... ño abertzale ez diran asko ere jute... dira. Sarbidea nai duna zaya liteke.

卐 卐 卐

Bi ziyo (motivo) ditu jai orek a... kiya estaliarasteko. Bata euzko-ant... -lan ederenetakoa ikustea eta bestea, ... rik aundina, biltzen dan dirua langile... roei laguntzeko izatea.

Abertzaleak urte guzian arpidez ... dago, batari edo besteari laguntz... Anitz arpideta lagundu du oneskero ... kaeran degun urte ontan, bañan beste ... ere lagunduko du. Nola ez izanik abe... letasuna alkaren laguntza, maitasuna. ... di aundi bat bai gera, senide baten... -beara ikusirik ituntzen geranak, ... maiteak izaki. Gure naya sendi osoa ... -gabe eta osasuntsu ikustea baita.

Gaurkoz urtero bezela langile lanik... beai laguntzea gure gogoa.

Igarotako urteetan, uriko salerosle (co... merciante) biotz onekoak ugari lagund... gute, bañan aurten naiko ian bai d... eurok zoritxareko bi ugolde alkin. J... aiz abertzale? Noski. Baita ni ere.

ANDON...

Euzkotar umien aldez

Astoa ta idia

(Gabon - ipuña)

Gaxotxoa ixildu zan, burutxua igitu zuan, bere begitxo itunakaz inguruan zeuden notiñai begiraturik; bere arnasa geldiki -geldiki aitu zan eta il zan.

Bere Gotzon Zaitzaleak arnas aundi bat eman zuan, eguak zabaldu eta joan zan.

Naigabedun ama gaxoak ezin siñistu zuan ainbesteko zoritxarik, baña Kelinetxo'ren arpegi polita oritzen asi zan, bere gorputztxoa gogortu ta ostu zan eta arizko andere bat bezin zuzena ta gogora geldítu.

Ama ta aita atera zituzten gelatik, eta bi edo iru lagun eta neskamiak asi ziran Kelinetxu azkeneko aldiz apaintzen.

Odeya baño lurruntsuagoa ta ariñagoa ta itxasoko bitsa baño zuriagoa zan soñekoa jantzi zioten, baita ere bere oskitxo zuriak, bein baño ibili gabiak.

Bere gaztaña margodun ile ederak ortztu ta goi margodun sedazko lokari eder batekin lotu ziozkaten.

Lore bila uri guzian ibili ziran baña ez zituzten aurkitu. ¡Gabon eguna bai zan!

Ekari zioten dendarik aberatsenian zeguan burestun zuri politena ta ipiñi zioten.

Gizon itxusi bat etori zan eta Kelinetxo sartzeko kajatxoa ekari zuan ¡ain edera! kanpotik goi-margo ta zilarezkoa, barutik zuria, dan dana, baru ta kanpo sedazkoa.

Sartu zuten Kelinetxo baruan bere burua sedazko burkotxo zuri baten gañean zualarik, eta bere soñeko edera alde bietatik eta barenetik berdin-berdin ipiñi zutenean, eskutxoak sedazko lokari batekin lotu zizkioten, lore sortatxo bat tartian ipiñirik.

Gelako orma nagusien erdira mai bat ekari zuten eta oyal ederakaz estali aldarea bai litzain; eta Kelinetxo'ren il obitxoa gañian ipiñi zuten.

Orma danak sedazko ta enkalezko oyal ederakaz estali zituzten, aurtxoa zegoan aldarean lorontzi ta argi asko ipiñi zituzten, baita ere Donoki'ko Gotzonen irudi bi ekari ta Kelinetxo'ren esker eta eskubi ipiñi, il zan Gotzontxo edera zaitu zezaten.

Beriala beste argi aundi batzuek ixotu zituzten, (zenbat eta argi geyago, ainbat eta zuriago ta oriago ikusten zan aren umetxo ildakoen arpegitxoa) laztandu zuten Kelinetxo bere matrail otzetan eta irten ziran gelatik beren lana ondo amaituta ikusirik.

Etxearen beste alderdian, senar-emasteak negar zegiten gogor.

Ezin zuten ontzat eman, onelako esturetan adizkideak esan oi duten "Gotzontxoak Donokira" esaera.

Aita-amak ezin ziñistu zezakien ziñismendunak ziran aren, beren alabatxoa Donokian bezin ondo, emen lurea beren ondoan izango ez zanik.

Zartzaroan iltzea baño aurtzaroan iltzea obea zanik ere ezin ziñistu zezakien, zerbait esatiagaktik, beren senide ta lagunak onela esaten bai zioten ere, onelako naigabe ta larietan danok esan oi degun bezela.

Umearen eriotzak ematen zioten naigabea, berak azkeneko unian igaro zituan erio-larien oroimenak geitutzen zuan, eta ezin ulertu zezakien, beren erayak zatitzen zituan oñaza baño aundiagorik izan zeitekenik.

(Daraike)
ARITOKIETA.

Josu umetxoari

IRAMENDI.

Josu aura jayo zaigu
—¡au gabaren edera!—
Gotzonak kanta-kantari
poztu dute ludia.

¡Gau dena dagon argitsu
eguna bezin garbi!
¿Izar bat jayo al zaigu
negar onein pozaldi?

Miren belauniko dago,
Joseba, ere berdin.
Gaurko gau beltza bai-dala
izarez eta urdin...

Gizonen poza or degu
aurtxo baten itxuran.
Gotzonak, kanta zazute,
kanta zeru garbian.

Eta zu nere biotza
zoaz seaskatxora.
Otoitza betor barnera,
begiak, beriz, gora.

Josu, zu zera benetan
guzien atsegiña.
Bigurtu zaite gaurdanik
nere barneko lora.

ALBITZ

Neure lagun mare-matiak.

Asko poztuko nitzateke aurten be beste urtietan lez Josu'ren Jayotzako abestijak abestuten ibiliko ba'zintzakeze.

Zubek ondo dakixube, ni, gabonetarako zuben ondoratu ezin natekena, orain Jaun -Goikua'ri eskarak ondo aurkitzen naz baña.

Neu zubekandik aparte nagon-aren baña, neure eritarak zarien albistar matiok gabon-abestijak abestuten oturia dan lez ibili zatezela, da, nik gura neukena.

Artzañak diño, Albis'ko emakumiak eztatezala aiztu artaldetik aldenduta daguan ardijekaz.

Baña bildur naz, zeuben artaldeko ardi -erikatubagaz aiztuta beste artalde bateko ardijakaz batuta ibiliko ete-zarien.

Olakorik egingo ba'zendube, egin, asko minduko nitzake, neure artaldeko ardijak mare be mare dodazana naz-eta.

Eta geyagoko barik, gaurko idazki au amatuten nua, lenengoko idazkija ixatekotan naiko luze idatzi dodala uste dot -eta.

Beraz agur ene albistar erikide matiok, eta txarto esanak azketsi.

ARTZAÑA.

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

INGI BILDEGI...
Papeleria del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIREN
Teléfono 15...